

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IRUNGO UDALA

Iragarkia

Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 26ko bilkuran 2017 ekitaldian Gizarte Larrialdiko Laguntzak emateko udal irizpideak onartu zituen.

Erabaki horretan xedatutakoa bete asmoz, argitara ematen dira irizpide horiek.

Irun, 2017ko maiatzaren 3a.—Gizarte Ongizateko A.O.T., alkatearen eskurodetzaz. (3150)

Gizarte larrialdietako laguntzak emateko irizpideak - 2017.

O. BALDINTZA OROKORRAK

Laguntza horiek emateko irizpideak eta betekizunak Gizarte Larrialdietako Laguntzak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuan eta 2017ko martxoaren 8an, Enplegua eta Gizarte Politikako sailburuaren Agindua onetsi zen. Horretan, gizarte-larrialdietarako laguntzetan jasotzen diren gastu espezifiko bakoitzerako zenbateko maximoak jasotzen dira; irizpideak adierazten dira, hura estaltzeko kontsignatutako kredituak banatzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta lurralde historiko bakoitzari 2017rako dagokion aurrekontu-muga ezartzen da.

Beraz, araudi horrek 2017an laguntza horiek ematea arautuko duten irizpideen oinarriak ezartzen ditu.

Hala ere, honako alderdi hauek ere kontuan hartuko dira:

— Kasu zehatzean behar-egoera arintzeko laguntzen egokitasunari dagokionez aurka baloratzerakoan, arreta berezia emango zaio ea inguruabarrik edo aurrekaririk badagoen haien zenbatekoak bidegabe erabiltzeko arriskua dagoela erakusten dutenak edo haren helburuarekin bateraezinez direnak.

Beraz, datu garrantzitsua izango da, laguntza emateko, arretik laguntzak eman badira eta haiek kustifikatu ez badira edo itzuli behar izan badira.

* Laguntza eten egingo da, erabiltzailea /familia hitzartutako jarraipen-hitzorduetara agertzen ez bada. Bi hitzordutara jarraian agertu ezean, bi hilabetez etengo da laguntza.

* Prestazioa eskatzen dutenen ondareak ezingo du gainditu Gizarte Larrialdietako Laguntzei buruzko 4/2011 Dekretuak izaera orokorrekin ezartzen duena (bizikidetzak unitateko kide kopuruaren arabera egokitutako litzatekeen Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren zenbatekoa bider 4). Horretarako, eskaera egiten den unean eskatzailearen kontuetako saldoa hartuko da kontuan. Dena dela, justifikatu gabeko ondare-aldaketak (beheranzkoak) antzemango balira, laguntza ukatu edo eten ahal izango da, dagokion teknikariak balorazio egin ondoren.

AYUNTAMIENTO DE IRUN

Anuncio

La Junta de Gobierno Local en sesión de 26 de abril de 2017 aprobó los criterios municipales para la concesión de ayudas de emergencia social correspondientes al ejercicio 2017.

En cumplimiento de lo dispuesto en ese mismo acuerdo, se hacen públicos los citados criterios.

Irun, a 3 de mayo de 2017.—La T.A.G. de Bienestar Social, p.d. del Alcalde. (3150)

Criterios para la concesión de ayudas de emergencia social - 2017.

O. CONDICIONES GENERALES

Los criterios y requisitos a tener en cuenta en la concesión de estas ayudas serán los que se recogen en el Decreto 4/2011 de 18 de enero regulador de las Ayudas de Emergencia Social y el Decreto 16/2017, del 17 de enero, de modificación del anterior. Con fecha 8 de marzo de 2017, se aprueba la Orden, de la Consejera de Empleo y Políticas Sociales, por el que se establecen las cuantías máximas para cada uno de los gastos específicos contemplados en las Ayudas de Emergencia Social, se señalan los criterios para la distribución para los créditos consignados para su cobertura y se fija el límite presupuestario que para el año 2017 corresponde a cada uno de los Territorios históricos y Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por consiguiente, esta normativa sienta las bases de los criterios que han de regir la concesión de dichas ayudas durante este año 2017.

No obstante, se tendrán en cuenta a su vez los siguientes aspectos:

— A la hora de valorar desfavorablemente la idoneidad de las ayudas para paliar la situación de necesidad en el caso concreto, se atenderá especialmente a la existencia de circunstancias o antecedentes que revelen el riesgo de que vaya a realizarse un uso indebido de las cuantías de las mismas o incompatible con su finalidad.

Por lo tanto será dato relevante para la concesión de la ayuda, la falta de justificación o de reintegro de ayudas concedidas con anterioridad.

* Se procederá a la suspensión de la ayuda en el caso de incomparecencia del usuario/ familia a las citas de seguimiento concertadas. La no asistencia a dos citas consecutivas dará lugar a la suspensión de la ayuda durante dos meses.

* El patrimonio del que dispongan los solicitantes de la prestación, no deberá ser superior al establecido con carácter general por el Decreto 4/2011, de Ayudas de Emergencia Social (4 veces el importe de la Renta de Garantía de Ingresos que correspondería según el número de miembros de la unidad convivencial). Para ello se computará el saldo de las cuentas de solicitante en el momento en que se realiza la solicitud. No obstante en el caso de que se detectaran variaciones del patrimonio (a la baja) no justificadas, podrá dar lugar a la denegación o suspensión de la ayuda tras valoración del/la técnico/a correspondiente.

* Ez da GLL emango, eskatzaileak edo EBUko kideren batek lana utzi badu edo bere borondatez lanaldia murriztu badu (kausa justifikazioak salbuetsita, esaterako, mendeko pertsona zaintzea edo beste batzuk).

1. OHIKO ETXEBIZITZA EDO BIZITOKIA GOZATZEKO ETA MANTENTZEKO BEHARREZKO GASTUAK

1.1. Alokairua.

– Etxebizitzaren alokairu-gastuetarako laguntza-modalitate guztietarako irizpide orokorrak:

* EBU bitan banatuz gero (pentsio osagarria jasotze-agatik), GLL kontzeptu horretan izapidetzeko, etxebizitzan bizi diren pertsona guztien diru-sarrerak hartuko dira kontuan.

* Ez da GLLrik izapidetuko alokairuaren edo hipoteka-kredituaren kontzeptuan, eskatzaileak beste etxebizitza bat baldin badauka jabegoan edo gozamenean. Salbuespenak egingo dira (banaketa, dibortzioa edo bestelako arrazoi batzuk tarteko direla -esate baterako, kaleratzea, etxeko indarkeriaren biktima izatea edo partekatu beharreko herentziak eta ezgaitasun egoerak- beren ohizko etxea utzi beharra izan duten pertsonak).

* Laguntza emateko aldiaren etxebizitzaren alokairuaren prezioa igotzen bada, ez da aldatuko emandako laguntza (laguntza-aldaketa laguntza ematen den hurrengo aldiaren egingo da).

* Exijituko da alokairuaren ordainketa banku-entitate baten bidez egitea etxebizitzaren jabeari.

Salbuespena: Bereziki zaurgarriak diren kolektiboetako kideak, etxebizitza berri bat bilatzeko inguruabar berezietan daudenean.

Etxebizitzaren gastuaren ordainketa banku-entitatez egin ez bada, laguntza justifikatutzat hartu ahal izango da, «bidegabean erreklamaziorik egin beharrik gabe», baldin eta erabiltzailea, laguntza jaso eta gero, banku-entitatearen bidez ordaintzen hasi bada, betiere bidegabean prozedura hasi aurretik hasi bada banku-entitatearen bidez ordaintzen.

– Etxebizitzaren errentamendua, errentamendu partekatua (bi titular edo gehiagoren izenean dagoen kontratua), azpierreantamendua (kontratu bat dago, eta gainera, azpierreantamendu bat), Ostatu edo Apopilotza kontratuak.

* Laguntza ezin izango da izapidetu kontzeptu horretan, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria jasotzen bada.

* Etxebizitza alokatzen laguntzeko zenbatekoa gehienez ere benetako gastuaren % 70a izango da, eta gehienez ere, 250 €.

* Etxebizitzaren alokairuaren gehienezko prezioa laguntza hau eskatzeko: hilabeteko 800 €.

* Errentamendu partekatua edo azpierreantamendua bada, ez dira onartuko bi eskari baino gehiago. Bi bizikidetzaren unitateetarako mugak honakoak dira: 125 € hilean, eta bien artean ezin da gainditu errentaren prezioaren % 80a.

* Alokairu babestuko etxebizitzan, BOE etxebizitzan edo udal titulartasuneko kasuetan, alokairuaren edo maileguaren hileko gastua hilean 300 eurokoa edo gehiagokoa denean soilik baloratuko dira alokairu-kontzeptuan laguntzak emateko salbuespenak. Kasu horietan, beharrezkoa izango da dagokion gizarte-txostena egitea. Kopuru horretatik beherako gasturako, ezin izango da laguntza izapidetu.

* Alokairu kontzeptuan GLL izapidetu ahal izango dira, baldin eta Bizigune Programako etxebizitzak badira eta alokairuaren hileko gastua 300 €/hilean edo hortik gorakoa baldin bada.

* No se concederán AES en los casos en los que el solicitante o algún miembro de la UECl haya abandonado trabajo, o haya reducido la jornada laboral de forma voluntaria (excepto causas justificadas como el cuidado de persona dependientes u otras).

1. GASTOS NECESARIOS PARA EL DISFRUTE Y MANTENIMIENTO DE LA VIVIENDA O ALOJAMIENTO HABITUAL

1.1. Alquiler.

– Criterios generales para todas las modalidades de ayudas para gastos de alquiler de vivienda:

* En caso de desdoblamiento de UCIs (por percibir complemento de pensión) para tramitar AES por este concepto, se tendrán en cuenta los ingresos de todas las personas que convivan en la vivienda.

* No se tramitarán AES en concepto de alquiler y/o crédito hipotecario si el solicitante dispone de otra vivienda en propiedad o usufructo. Se contemplarán excepciones (personas que se hubieran visto obligadas a dejar su domicilio habitual por separación o divorcio u otras causas como desahucio o ser víctima de violencia doméstica, herencias compartidas y situaciones de discapacidad).

* Si durante el período de concesión de la ayuda se produce un aumento del precio de alquiler de la vivienda, no se procederá a modificar la ayuda concedida (se realizará la modificación de ayuda en la fecha de la siguiente concesión).

* Se exigirá que el abono del alquiler al dueño de la vivienda se realice a través de entidad bancaria.

Excepción: personas pertenecientes a colectivos especialmente vulnerables con especiales circunstancias para la búsqueda de nueva vivienda.

En el caso de que el pago del gasto de la vivienda no se haya realizado por entidad bancaria se podrá considerar como ayuda justificada «sin dar lugar a reclamación de indebidos», si la persona usuaria ha iniciado con posterioridad a la percepción de la ayudas el pago a través de la entidad bancaria (siempre que el inicio del pago a través de la entidad bancaria sea anterior al inicio del procedimiento de indebidos).

– Arrendamiento de vivienda, Coarrendamiento (contrato a nombre de dos o más titulares), Subarriendo (existe un contrato y además un subarriendo), contratos de Hospedaje o Pupilaje.

* No se podrá tramitar ayuda por este concepto en caso de ser receptor de la prestación de Complemento de Vivienda.

* El importe máximo de ayuda para alquiler de vivienda será del 70 % del gasto real, sin superar los 250 €.

* Límite máximo del precio de alquiler de la vivienda para poder solicitar esta ayuda: 800 € mes.

* En caso de coarriendo o subarriendo, no se admitirán más de dos solicitudes. Los límites para dos unidades de convivencia son: 125 € mes, sin poder superar entre ambas el 80% del precio del alquiler.

* En caso de viviendas de alquiler protegido, viviendas de V.P.O. o de titularidad municipal, solo se valorarán excepciones para la concesión de ayudas en concepto de alquiler cuando el gasto mensual del alquiler o del préstamo sea igual o superior a 300 € al mes. En estos casos será necesario la emisión del pertinente informe social. Para el gasto inferior a esta cantidad no será posible la tramitación de ayuda.

* Se podrán tramitar AES en concepto de alquiler, cuando se trate de viviendas del Programa Bizigune y el gasto mensual del alquiler sea igual o superior a 300 €/mes.

Kasu horretan, Bizigune Programaren diru-laguntzaren zenbatekoaren eta alokairuko GLL kontzeptuari dagokion mugaren artean dagoen aldearekin izapidetuko da laguntza.

Ez da laguntzarik izapidetuko, baldin eta erabiltzaileak etxebizitza hori ordaintzeko Bizigune Programaren barruan jasotzen duen diru-laguntza 250 €-koa edo hori baino gehiagokoa baldin bada.

* Etxebizitzan ostatu edo apopilotza kontratuak baldin badaude, horrelako bi kontratu-eskaera egin ahal dira gehienez. Bizikidetzaren unitate bakoitzeko hileko laguntza 125 €-koa izango da.

– Alojamiento en hoteles y pensiones legalmente constituidas.

* Legez eraturako hotel eta pensioetan ostatu hartuz gero, 250 €-koak izango dira mugak. Kasu horretan, bizikidetzaren unitateen muga ez da bikoa izango, baizik eta establezimenduak legez aitortuta daukan gehienezko gela-kopuruaren arabera izango da.

1.2. Etxebizitza erostearen ondorioz hartutako kredituen interesak eta amortizazioak eragindako gastuak.

* Ez da GLLrik izapidetuko hipoteka-kredituaren kontzeptuan, baldin eta eskatzaileak beste etxebizitza bat baldin badauka jabegoan edo gozamenean. Salbuespenak egingo dira (banaketa, dibortzioa edo bestelako arrazoi batzuk tarteko direla -esate baterako, kaleratzea, etxeko indarkeriaren biktima izatea edo partekatu beharreko herentziak- beren ohizko etxea utzi beharra izan duten pertsonak).

* Etxebizitzen kredituak amortizatzeko eta interesen gastuei aurre egiteko laguntzak izapidetu ahal izango dira, 250 €-taraino, eta betiere kredituaren hileko interesen eta hileko amortizazioaren zenbatekoaren % 70^a gainditu gabe.

* Kontzeptu hori duten laguntzak jasotzeko aldia gehienez ere 5 urtekoa izango da, bizikidetzaren unitatearen izatealdi osoan batuketa osoa eginda edo etxebizitza berari dagokionez kreditu bat ordaintzeko. Dena dela, muga hori ez zaie aplikatuko honako pensio edo prestazio hauek dauzkaten titularrei:

Erretiro-pentsioak.

Beste pensio batzuk edo zerga gabeko edo SOVIko prestazioak (oro har, 65 urtetik gorakoentzat).

Alarguntasun-pentsioak, 65 urtetik gorakoak.

Lanerako ezintasun absolutuaren edo minusbaliotasun handiaren pensioak, gutxienez 60 urte.

* Kredituak etxebizitza erosteko izan behar du, ez bestelako gastuetarako (ohizko etxebizitza berriz hipotekatzea beste ondasun bat erosteko, adibidez). Hori egiaztatzeko, salerosketa-eskaturik eskatuko zaio interesatuari, baita kredituari dagokion dokumentazioa ere.

* Eskatutako hipoteka-kreditua, gehienez ere, eskrituratutako prezioa baino % 10 gehiago izango da.

* Behar egoera (etxebizitza erostea) gutxienez laguntza eskatu baino urtebete lehenago sortu behar da.

* Eskatzailea Oinarrizko Errentaren, Gizarteratzeko Laguntzaren eta/edo Gizarte Larrialdiko Laguntzaren hartzaila izan baino lehen formalizatuta egon beharko dute kredituek.

* Azken bi baldintza horiek salbuespenez kontuan ez hartzeko aukera egongo da, baldin eta gizarte-bazterketa eta/edo marjinazio egoera berezian baldin badago familia (gutxiengo etnikoen kolektiboak, guraso bakarreko familiak...). Kasu horretan, laguntza emaan ahal izango da, aurretik dagokion txosten teknikoak eginda.

En este caso la ayuda se tramitará por la diferencia entre la cuantía de la subvención del programa Bizigune y el límite que le corresponda en concepto de AES de alquiler.

No se tramitará ayuda si la subvención que percibe el usuario para el pago de esa vivienda dentro del Programa Bizigune es igual o superior a 250 €.

* En caso de que en la vivienda existan contratos de hospedaje o pupilaje el límite para el número de solicitudes con este tipo de contratos es de dos. La ayuda será de 125 € mensuales por unidad de convivencia.

– Alojamiento en hoteles y pensiones legalmente constituidas.

* En caso de alojamiento en hoteles y pensiones legalmente constituidos los límites serán de 250 €. En este caso el límite de unidades de convivencia no será de dos, sino que vendrá dado por el número máximo de habitaciones legalmente reconocidas del establecimiento.

1.2. Gastos derivados de intereses y amortización de créditos contraídos como consecuencia de la adquisición de una vivienda.

* No se tramitarán AES en concepto de crédito hipotecario si el solicitante dispone de otra vivienda en propiedad o usufructo. Se contemplarán excepciones (personas que se hubieran visto obligadas a dejar su domicilio habitual por separación o divorcio u otras causas como desahucio o ser víctima de violencia doméstica, herencias compartidas.).

* Se podrán tramitar ayudas para hacer frente a gastos de intereses y de amortización de créditos de vivienda, hasta 250 €, sin poder superar el 70 % del montante de los intereses mensuales y la amortización mensual del crédito.

* El período de tiempo máximo para la percepción de ayudas por este concepto no podrá exceder de 5 años, como suma total durante todo el período de existencia de la unidad de convivencia o para el abono de un crédito sobre la misma vivienda. No obstante, este límite no se aplicará a personas que sean titulares de las siguientes pensiones o prestaciones:

Pensiones de jubilación,

Otras pensiones o prestaciones no contributivas o del SOVI, (en general para personas mayores de 65 años).

Pensiones de viudedad, mayores de 65 años.

Pensiones por incapacidad laboral absoluta o gran invalidez, mínimo 60 años.

* El crédito tiene que hacer frente a un gasto de adquisición de vivienda y no de otro tipo (como el hecho de hipotecar nuevamente la vivienda habitual para hacer frente a la compra de otro bien). Se comprobará requiriendo al interesado la escritura de compra-venta y la documentación correspondiente al crédito.

* El crédito hipotecario solicitado deberá ser como máximo de un 10 % más del precio escriturado.

* La situación de necesidad (compra de la vivienda) tiene que haberse dado como mínimo con un año de anterioridad a la fecha de solicitud de la ayuda.

* Los créditos se tendrán que haber formalizado con anterioridad a que el solicitante tenga la condición de ser preceptor de la Renta Básica, Ayuda de Garantía de Ingresos y/o Ayuda de Emergencia Social.

* Estas dos últimas condiciones, podrán ser no tenidas en cuenta de forma excepcional en el caso de familias en especial situación de exclusión social y/o marginación (colectivo de minorías étnicas, familias monoparentales, etc...) en cuyo caso podrá contemplarse la posibilidad de concesión de ayuda previo informe técnico oportuno.

* BOE etxebizitzak direnean, baloratu egingo dira laguntzak emateko salbuespenak, baina soil-soilik maileguaren hileko gastua hilean 300 eurokoa edo gehiagokoa denean. Kasu horietan, dagokion gizarte-txostena egingo da.

1.3. Etxebizitza mantentzeko gastuak.

* Gastu horiek bi kontzeptutan banakatzen dira:

Energia gastua, alegia: argia, gasa eta beste erregai batzuk. Zenbatekoaren muga, 900 € urtean. Gehienez, 75 € emango dira hilean.

Beste mantentze gastu batzuk, honako hauek sartuta: ura, estolderia, HOZ, zaborrak, jabeen komunitateko kuota eta etxebizitzaren aseguruia. Telefono-fakturak ordaintzeko gastua ez da diruz lagunduko. Zenbatekoaren muga, 360 urtean. Gehienez, 30 € emango dira hilean.

Laguntza horiek justifikatzeko, urteko zenbaketa egingo da.

* Ezin izango da GLLrik izapidetu mantentzeko kontzeptuan, pertsonak Etxebizitzarako Osagarria jasotzen bada.

* EBU bitan banatuz gero (pentsio-osagarria jastotze-agatik) kontzeptu horrengatik GLL izapidetzeko, etxebizitzan bizi diren pertsona guztien diru-sarrerak hartuko dira kontutan.

* Ez da laguntza ematen jarraituko, baldin eta onuraduna etxebizitzatik joaten bada 4 hilabetez edo gehiagoz.

2. ETXEBIZITZAREN BIZIGARRITASUNA ETA OINARRIZKO EKIPAMENDUA

* Etxebizitzaren bizigarritasunari eta oinarrizko ekipamenduari erantzuteko GLL laguntzak urte osoan izapidetu ahal izango dira.

* Urteko eta familiako gehienez laguntza 1 izapidetuko da (salbuespeneko egoeretan izan ezik, aurretik dagokion txosten teknikoa eginda).

* Laguntza horiek izapidetzeko, betiere hori egin daitekenean, lehentasuna emango zaio ondasuna helburu sozialak dituzten saltoki edo entitateetan (Emaús, ...) erosten bada. Bestela, bi aurrekontu desberdin aurkeztu beharko dira.

2.1. Altzariak eta etxe-tresnak.

– Garbigailua: gehienez 300 €.

– Hozkailua: gehienez 300 €.

– Sukaldea: gehienez 300 €. Plaka bakarrik: 150 €.

– Mikrouhina: 60 €.

– Berokuntzako gailuak.

– Beste kontzeptu batzuk: oinarrizko altzarien gastuak ordaintzeko laguntzak, betiere guztizko aurrekontua 600 €-tik gora ez bada.

2.2. Konponketak eta oinarrizko instalazioak.

Kontzeptu honetatik kanpo geratzen dira fatxadak, teilatuak-eta konpontzea eta gas- eta berokuntza-instalazioak eta horrelakoak; eta oro har, beste erakunde ofizial batzuetatik hitzartutako laguntza-kontzeptu horiek guztiak. Azkeneko horiek ukatuta gertatuz gero, irizpide teknikoaren arabera baloratuko da egoera.

3. LEHEN MAILAKO BEHARRAK

* Oinarrizko beharrei erantzuteko GLL laguntzak urte osoan izapidetu ahal izango dira (salbuespena: ikus odontologiako laguntzen atalean adierazten dena).

– Gehienez ere laguntza bat emango da familiako eta kontzeptuko, urtero (baloratu beharreko salbuespenak).

* En caso de que se trate de viviendas de VPO solo se valorarán excepciones para la concesión de ayudas cuando el gasto mensual del préstamo sea igual o superior a 300 €/mes. En estos casos se emitirá el pertinente informe social.

1.3. Gastos de mantenimiento de la vivienda.

* Estos gastos se desglosan en dos conceptos:

Gasto de energía, que incluye: luz, gas y otros combustibles. Límite de cuantía 900 € anuales. Se concederá como máximo, 75 € mensuales.

Otros gastos de mantenimiento, que incluye: agua, alcantarillado, IBI, basuras, cuota de comunidad de propietarios y seguro de la vivienda. El gasto de pago de facturas de teléfono no será subvencionable. Límite de cuantía 360 € anuales. Se concederá como máximo la cantidad de 30 € mensuales.

Para la justificación de estas ayudas se realizará un cómputo anual.

* No se podrá tramitar AES en concepto de mantenimiento si se es perceptor de Complemento de Vivienda.

* En caso de desdoblamiento de UCIs (por percibir complemento de pensión) para tramitar AES por este concepto, se tendrán en cuenta los ingresos de todas las personas que convivan en la vivienda.

* No se mantendrá la ayuda en caso de que el beneficiario se ausente del domicilio durante un periodo igual o superior a 4 meses.

2. HABITABILIDAD Y EQUIPAMIENTO BÁSICO DE LA VIVIENDA

* Las ayudas de AES para habitabilidad y equipamiento básico de vivienda se podrán tramitar a lo largo de todo el año.

* Solo se tramitarán un máximo de 1 ayuda por familia anual (excepto en situaciones excepcionales, previo informe técnico correspondiente).

* Para la tramitación de estas ayudas, siempre que sea posible, se priorizará que la compra del bien se realice en establecimientos o entidades con fines sociales (Emaús...). En caso contrario, se deberán de presentar dos presupuestos diferentes.

2.1. Mobiliario y electrodomésticos.

– Lavadora: tope máximo 300 €.

– Frigorífico: tope máximo 300 €.

– Cocina: tope máximo 300 €. Solo placa: 150 €.

– Microondas: 60 €.

– Aparatos de calefacción.

– Otros conceptos: Ayudas destinadas a sufragar gastos de mobiliario básico, no debiendo superar el presupuesto total la cantidad de 600 €.

2.2. Reparaciones e instalaciones básicas.

Se excluyen de este concepto reparaciones de fachadas, tejados instalaciones de gas, calefacción y en general todos aquellos conceptos para los cuales existen ya estipuladas ayudas de otros organismos oficiales. En caso de denegación de estas últimas, se valorará la situación bajo criterio técnico.

3. NECESIDADES PRIMARIAS

* Las ayudas de AES para responder a necesidades primarias se podrán tramitar a lo largo de todo el año (excepción: ver lo que se señala en el apartado de ayudas de odontología).

– Se concederá un máximo de una ayuda por familia y concepto anualmente (Excepciones a valorar).

* Ezin izango da gainditu Eusko Jaurilaritzaren urteko Aginduan ezartzen den urteko gehienezko zenbatekoa.

* Sistema publikoek estaltzen ez dituzten oinarritzko beharrei dagozkien gastuei erantzuteko GLLak izapidetu ahal izango dira; esate baterako, jantziak, hezkuntza eta prestakuntza, eta osasun-arreta, betiere dagokion teknikariak balorazioa eginda.

Gainera, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

– Protesi okularrak (betaurrekoak):

Laguntzaren gehienezko zenbatekoa: 250 €.

Adin txikikoen kasuan, gastu osoa ordainduko da.

Egoitza-ekipamenduan dauden adineko pertsonen kasuan, laguntza bideratu ahal izango da (urte-bukaerako aurrekontu-erabilgarritasunaren arabera).

Laguntza horiek izapidetzeko bi aurrekontu desberdin aurkeztu beharko dira.

Aurretik aurkeztu eta onetsi den aurrekontuan agertzen den hornitzaileari egin beharko zaio erosketa.

– Belarrietarako protesiak:

Gehienez 900 €.

Arrazoiren batengatik Foru Aldundiaren aldetik prestaziorik jaso ezin denean bakarrik emango dira.

– Odontologia-gastuak:

– Laguntzak emango dira oinarritzko beharretarako (odontologia-gastuak), 18 urtetik beherakoentzat eta 65 urtetik gorakoentzat, urte osoan.

Gainerako pertsonentzat, egoera baloratu ahal izango da urteko azken hiruhilekoan, aurrekontu-sailaren egoera kontuan hartuta.

Ez dira sartzen hortzak ateratzeko gastuak.

Ez da eskatuko Osakidetzako dagokion espezialistaren txosten medikoa, gizarte-langileak bestelakorik irizen ez badio behintzat. Beharrezkoa izango da bi aurrekontu desberdin aurkeztea.

Aurretik aurkeztu eta onetsi den aurrekontuan agertzen den klinikan egin beharko da tratamendua.

Osasun-zerbitzu publikoen estaltzen ez dituzten oinarritzko tratamendu eta materialetarako dira laguntza horiek.

Gehienezko laguntza: 900 €.

Egoitza-ekipamenduan dauden adineko pertsonen kasuan, laguntza bideratu ahal izango da (urte-bukaerako aurrekontu-erabilgarritasunaren arabera).

Laguntza horiek izapidetzeko bi aurrekontu desberdin aurkeztu beharko dira.

– Formazio-ikastaroek eta jantzi-premiei eragindako gastuak. Gastuaren arabera baloratu beharko da laguntzaren zenbatekoa.

– Esne maternizatua erosteak eragindako gastuak.

– Jaioberriak 9 hilabete bete arte.

– Beharrezkoa da txosten mediko baten bidez justifikatzea amak ezin diola bere esnea eskaini.

– Laguntzaren zenbatekoa: hilabeteko 60 €.

4. AURRETIKO ZORREK ERAGINDAKO GASTUAK

Laguntzak eman ahal izango dira aurretiko zorpetzearen kontzeptuan, betiere gastua etxebizitzaren alokairua, interesak edo etxebizitza erosteko kreditua edo mantentzeko gastuak

* No se podrá superar la cuantía máxima anual que se fije en la Orden anual de Gobierno Vasco.

* Se podrán tramitar AES que respondan a gastos relativos a las necesidades primarias, tales como vestido, educación y formación y atención sanitaria, no cubiertas por los diferentes sistemas públicos, siempre tras valoración del/ la técnico/a correspondiente.

Se tendrán en cuenta además los siguientes criterios:

– Prótesis oculares (gafas):

Tope máximo de ayuda a conceder: 250 €.

En el caso de menores se les sufragará la totalidad del gasto.

En caso de personas mayores ingresadas en equipamiento residencial, podrá tramitarse al ayuda (dependiendo de la disponibilidad presupuestaria a fin de año).

Para la tramitación de estas ayudas se deberán de presentar dos presupuestos diferentes.

La compra deberá realizarse en el proveedor que conste en el presupuesto presentado y aprobado anteriormente.

– Prótesis auditivas:

Máximo 900 €.

Se concederán solo cuando por algún motivo no corresponda prestación desde la Diputación Foral.

– Gastos de odontología:

– Se concederán ayudas para necesidades primarias (gastos de odontología) para menores de 18 años y personas de 65 años o más a lo largo de todo el año.

Para el resto de personas se podrá valorar la situación en el último trimestre del año y según la situación de la partida presupuestaria.

No se contempla el gasto derivado de extracciones dentales.

No se exigirá informe médico del especialista correspondiente de Osakidetza, salvo a criterio de la trabajadora social. Será necesario presentar dos presupuestos diferentes.

El tratamiento deberá realizarse en la clínica que conste en el presupuesto presentado y aprobado anteriormente.

Estas ayudas están destinadas a tratamientos y materiales básicos no cubiertos por los servicios públicos de salud.

Tope máximo: 900 €.

En caso de personas mayores ingresadas en equipamiento residencial, podrá tramitarse la ayuda (dependiendo de la disponibilidad presupuestaria a fin de año).

Para la tramitación de estas ayudas se deberán de presentar dos presupuestos diferentes.

– Gastos derivados de la asistencia a cursos de formación, y necesidades de vestido: Cuantía de la ayuda a valorar según el gasto.

– Gastos derivados de la compra de leche maternizada:

– Hasta los 9 meses de vida del bebé.

– Necesario justificar mediante informe médico la imposibilidad de ofrecer por parte de la madre leche materna.

– Cuantía de la ayuda: 60 € / mes.

4. GASTOS DE ENDEUDAMIENTO PREVIO

Se podrán conceder ayudas por el concepto de endeudamiento previo, siempre que el gasto esté relacionado con el pago del alquiler, intereses o amortización de crédito destinado

ordaintzeko edo bizitzako oinarrizko beste behar batzuei aurre egiteko egindako gastuengatik baldin bada.

Emateko kopuru maximoa kontzeptu bakoitzerako ezarritakoa izango da, eta beharrezkoa izango da kontzeptu bakoitzeko jasotzen diren betekizun berberak betetzea.

Alokairuak eragindako zorpetze kontzeptuan sartuko dira etxebizitza alokatzeko kontratua formalizatzeko laguntzak. Honako hauek dira laguntza horri dagozkion kontzeptuak: Agenzia gastuak, fidantza hilabeteak, lehen hilabetearen ordainketa, eta bankuko abala formalizatzeko gastuak. Kontzeptu horregatik guztira eman daitekeen laguntza 2.000 €-koa izango da. Salbuespen-egoeretan (larrialdietarako udal etxebizitzatik ateratzea, etxegabetzeagatik etxea galdu izana...), kopuru hori egin daiteke kontzeptu horretarako urteko kopuruaren mugaraino.

5. PROZEDURA KONTUAK

5.1. Instrukzioa.

Espedienteen instrukzioa egitean ofizioaren azkartasuna eta bultzada ziurtatzearen, dagokion izapidea egingo da, prozedura horren bidez bere izapidea egiteko betekizunak betetzen ez dituzten GLL eskaeren kasuan.

Alde horretatik, GLLak emateko izapidea bidean jarriko da, a priori izapidetzeko betekizunak beteta ere folmalki hartarako eskaera bezala aurkeztu ez diren eskaeren kasuan.

Kaleratzeko Agindu bat dagoelako edo etxebizitza berehala galtzeko arriskua dagoelako larrialdi-egoeretan, eta eskatzaileak GLL jasotzeko betekizunak betetzen baditu (etxebizitzara sartzeko lehenengo gastuak ordaintzeko kontzeptuan), Laguntza Berezi bat izapidetuko da hasiera, premia izaeraz, eta, gero, GLL laguntza izapidetuko da, GLLren espediente osatuta dagoenean. Eskatzaileari aitortzen bazaio gizarte-larrialdietako laguntza hori jasotzeko eskubidea duela, laguntza berezi hori itzultzeko konpromisoa izango du, laguntzarekin bat datorren zenbateko berean, bateraezina dela ulertuko baita. Konpromiso horiek bete ezean, laguntza berezia baliogabetu ahal izango da, eta itzultzeko eskatu.

5.2. Ekonomi izaerako eskubideak eta prestazioak baliarazi izana egiaztatzea.

– Egiaztatzen denean eskatutako GLL laguntzarekin bateraezina diren izaera ekonomikoko prestazioak –saterako, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzaren prestazio osagarria– baliarazi litzakeela eskatzaileak, emandako gizarte larrialdietarako laguntza eten egingo da, harik eta prozedura horietako baiespen- edo ezespen-ebazpena jakiten den arte.

– Egiaztatzen denean eskatutako GLL laguntzarekin bateragarriak diren izaera ekonomikoko eskubideak edo prestazioak baliarazi litzakeela eskatzaileak, interesdunari eskatuko zaio bi hilabeteko epean egiaztatu dezala eskubide horiek baliarazi dituela, diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzaren prestazio osagarriaren eskaera kasuetan, eta hilabeteko epean beste mota bateko eskubideak edo prestazioak baldin badira. Horrelako kasuetan, egiaztapena urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 18. artikulua dioenaren arabera egingo da. Egiaztapenik ez egiteak eskaera ezestea ekarriko luke.

5.3. Eskatzailearen egoera ekonomikoa egiaztatzea.

Eskatzaileen diru-sarrerak eta ondarea zehaztearen, kontuan hartuko dira Diru-sarrera Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 14. eta ondorengo

a compra de vivienda o gastos de mantenimiento de la vivienda o por la realización de gastos necesarios para atender otras necesidades básicas de la vida.

La cantidad máxima a conceder será el establecido para cada concepto, y será necesario cumplir los mismo requisitos que se contemplan para cada uno de los conceptos.

Se incluirán en el concepto de endeudamiento por alquiler las ayudas para la formalización del contrato de alquiler de vivienda. Los conceptos a los que se refiere esta ayuda serán: gastos de agencia, meses de fianza, pago de primer mes, y gastos para la formalización del aval bancario. La cantidad total de ayuda a conceder por este concepto será de 2.000 €. En situaciones excepcionales (salida de vivienda de emergencia municipal, situación de pérdida de vivienda por desahucio...) dicha cantidad podrá verse incrementada hasta el límite anual por este concepto.

5. CUESTIONES PROCEDIMENTALES

5.1. Instrucción.

En orden a asegurar la celeridad y el impulso de oficio en la instrucción de los expedientes, se dará el trámite que corresponda, en su caso, a aquellas solicitudes de AES que no cumplan los requisitos para su tramitación por este procedimiento.

En el mismo sentido, se dará trámite para la concesión de AES a aquellas solicitudes que, cumpliendo a priori los requisitos para su tramitación, no se hubieran presentado formalmente como tales.

En situaciones de urgencia en las que exista una Orden de desahucio o riesgo inminente de pérdida de vivienda, y si el solicitante cumple los requisitos para percibir AES (en concepto de pago de primeros gastos para el acceso a vivienda), se tramitará inicialmente una Ayuda Especial con carácter de urgencia, y posteriormente se tramitará la ayuda de AES cuando este expediente de AES esté completo. En caso de reconocerse al solicitante el derecho a la percepción de la citada ayuda de emergencia social, se compromete al reintegro de esta ayuda especial en la cantidad que resulte coincidente, que se entenderá incompatible. El incumplimiento de estos compromisos podrá dar lugar a la anulación de la ayuda especial y reclamación de reintegro.

5.2. Comprobación de haberse hecho valer los derechos y prestaciones de contenido económico.

– Cuando se compruebe que el solicitante podría hacer valer prestaciones de contenido económico que sean incompatibles con la percepción de la ayuda de emergencia social solicitada, tales como la renta de garantía de ingresos o la prestación complementaria de vivienda, la concesión de la ayuda de emergencia social se suspenderá hasta que sea conocida la resolución estimatoria o desestimatoria en estos procedimientos.

– Cuando se compruebe que el solicitante podría hacer valer derechos o prestaciones de contenido económico que sean compatibles con la percepción de la ayuda de emergencia social solicitada, se requerirá al interesado para que acredite el haber hecho valer tales derechos en el plazo de dos meses si se trata de solicitudes de renta de garantía de ingresos o prestación complementaria de vivienda y en el plazo de un mes si se trata de otro tipo de derechos o prestaciones. En estos casos la acreditación se realizará en los términos del artículo 18 del Decreto 4/2011, de 18 de enero. La falta de acreditación traerá como consecuencia la declaración de desistimiento de la solicitud.

5.3. Comprobación de la situación económica del solicitante.

Para la determinación del nivel de ingresos y patrimonio de los solicitantes se tendrán en cuenta las normas establecidas en los artículos 14 y siguientes del Decreto 147/2010, de 25 de

artikuluetan xedatzen dena; horretarako, kasu bakoitzari dago-kion dokumentazioa aurkezteko eskatuko da.

Ondorio horietarako, honakoa kontuan hartuko da:

– Bi ibilgailu edo gehiagoren titularra izanez gero, ulertuko da ez dagoela behar-egoera batean. Beraz, ukatzeko arrazoiak izango da, profesional erreferenteak baloratzen badu ibilgailu-kopurua ez dela koherentea behar-egoerarekiko.

* Eskatzaileen egoera ekonomikoa egiaztatzeko egungo saldoaren eta banku-kontuetan azken 12 hilabeteetan egon diren mugimenduen frogagiria eskatuko da, nolaz eta egoera bereziaren aurrean Kasuaren Arduraduna den gizarte langileak erabakitzen ez duen azkeneko hori ez dela beharrezkoa, irizten duelako eskasia ekonomikoko egoera behar bezain egiaztatuta dagoela eta frogatuta dagoela zailtasuna dagoela mugimendu horiek islatuko lituzkeen agiri bat aurkezteko (beste Autonomia Erkidego batzuetan irekitako kontuak...).

* Atzerritarren kasuan, eskatzailearen egoera ekonomiko-koa egiaztatzeko, jatorriko herrialdeko Ondasunen Ziurtagiria aurkezteko eskatuko zaio. Ziurtagiri horrek bi urteko indarraldia izango du (ez da urtero aurkeztuko). Eskaera egiteko unean, ondasunik ez edukitzea adierazten duen zinpeko adierazpena onartu ahal izango da, eta hiru hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da dagokion ziurtagiria.

Diru-sarrera gisa zenbatuko dira Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eta Etxebizitzaren Prestazio Ekonomikoa.

5.4. Zenbatekoaren aldaketak:

* Diru-laguntzaren zenbatekoaren aldaketak egiteko, orokorrean, 4 hilabeteko epean pilatuko dira.

* Ez da laguntzaren zenbatekoaren aldaketarik izapide-tuko aldaketa horren zenbatekoa 30 €-tik gorakoa ez bada, iri-tziko baitzaio ez dela funtsezko aldakuntzarik egon emandako laguntzaren baldintzetan.

5.5. Etendurak:

* Laguntzaren ordainketa hori eten ahal izango da, prebentzioz, bidegabeko ordainketak egon ahal direla uste denean, harik eta bidezkoa dena erabakitzen arte.

* Bali-teke balizko bidegabeko horien arrazoiak izatea bate-raezintasuna dagoela diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzaren prestazio osagarria (etxebizitzarekin lotutako gastu-kontzeptuak) jasotzearekin. Kasu horretan, gizarte larrialdietarako laguntza eten egingo da DBE eskuratzeko denboraren betekizuna betetzen duenean. DBE dagokion hilabete horretara arte jasoko du GLL laguntza (azkeneko hori barne).

* Era berean, laguntza eten ahal izango da, baldin eta antzematen bada bidezkoa dela gizarte-larrialdietarako laguntza jasotzen duenaren onurarako izan litezkeen beste eskubide ekonomiko batzuk baliaraztea. Etendura, arrazoi justifikaturik egon ezean, eskubide horiek baliarazteko premia detektatu eta adierazi zenetik hasi eta hilabeteko epean egingo da, jada eskubide horiek baliarazi izan ez balira.

5.6. Justifikazioak.

* Laguntzaren zertarako justifikatutzat emango da, baldin eta laguntza hori erreferentziako gastu guztia ordaintzeko soilik erabili denean. Laguntza eten ahal izando da gastua parzialki ordaintzen bada.

* Onar daiteke arrazoi horregatik bidegabe jasotako prestazioen zenbatekoa erreklamatzeko espediente bat hasi eta geroago aurkeztea frogagiriak, espedientearen behar bezala arazoitutako gorabeherak ematen direnean, hau da, frogagiri

mayo, de la Renta de Garantía de Ingresos, para lo que se requerirá la presentación de la documentación que resulte pertinente según el caso.

A estos efectos se tendrá en cuenta lo siguiente:

– Se podrá considerar la titularidad de dos o más vehículos como un signo externo de no encontrarse en situación de necesidad. Por lo tanto, podrá ser motivo de denegación en el caso que la profesional referente valore que el número de vehículos no es coherente con la situación de necesidad.

* Para la comprobación de la situación económica de los solicitantes se pedirá justificación del saldo actual y de los movimientos de los últimos 12 meses de las cuentas bancarias salvo que en circunstancias especiales, y a criterio de la trabajadora social Responsable del Caso, se considere que esto último no fuera necesario por quedar acreditada suficientemente la situación de precariedad económica y existir dificultad constatada para presentar documento que refleje dichos movimientos (cuentas abiertas en otras CCAA...).

* En el caso de personas extranjeras, para la comprobación de la situación económica del patrimonio del solicitante, se requerirá aportar como documentación el Certificado de Bienes de su país de origen. Este certificado tendrá una vigencia de dos años (no se presentará anualmente). En el momento de realizar la solicitud podrá admitirse una declaración jurada de no disponer de bienes, y en el plazo de tres meses presentar el certificado correspondiente.

– Se computarán como ingreso la PCV (Prestación Complementaria de Vivienda) y la PEV (Prestación Económica de Vivienda).

5.4. Modificaciones de cuantía:

* Para la realización de modificaciones de ayuda se acumularán, con carácter general, periodos de 4 meses.

* No se tramitarán modificaciones de la cuantía de la ayuda, por no considerarse que ha habido una variación sustancial de las condiciones de su concesión, cuando la cuantía de la modificación no supere los 30 €.

5.5. Suspensiones:

* Podrá suspenderse, con carácter preventivo, el pago de la ayuda cuando se estime la posibilidad de pagos indebidos, en tanto se resuelve lo procedente.

* En el supuesto de que la causa de los posibles indebidos sea la incompatibilidad con la percepción de renta de garantía de ingresos o prestación complementaria de vivienda (conceptos de gasto relacionados con la vivienda), la suspensión de la ayuda de emergencia social tendrá lugar desde el momento en que el percceptor de la AES cumpla el requisito de tiempo para poder acceder a la RGI (percibiendo la ayuda de AES hasta ese mismo mes completo).

* Cabrá asimismo la suspensión en caso de que se detecte la procedencia de hacer valer otros derechos económicos de los que el percceptor de la ayuda de emergencia social pudiera beneficiarse. La suspensión tendrá lugar, salvo razones justificadas, en el plazo de un mes desde que fuera detectada e indicada la necesidad de hacer valer tales derechos, si éstos no se hubieran hecho valer.

5.6. Justificaciones.

* Se entenderá justificado el destino de la ayuda solo cuando la misma revierta en un total abono del gasto al que se refiere. Cabrá la suspensión de la ayuda en caso de que el gasto sea abonado parcialmente.

* Solo será admisible la presentación de justificantes con carácter posterior al inicio de un expediente para la reclamación del reintegro de indebidos por esta causa cuando concurren circunstancias, debidamente justificadas en el expediente, que

horiek ezarritako epeetan aurkeztea ezinezkoa dela edo horretarako zailtasuna dagoela pentsarazten duten gorabeherak direnean. Inguruabar horien balorazio teknikoak egingo da.

– Urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuak zazpigarren artikuluan ezartzen duena kontuan hartuta, Kasu zehatzean behar-egoera arintzeko laguntzen egokitasunari dagokionez aurka baloratzekoan, arreta berezia emango zaio ea inguruabarririk edo aurrekaririk badagoen haien zenbatekoak bidegabe erabiltzeko arriskua dagoela erakusten dutenak edo haren helburuarekin bateraezinak direnak.

Beraz, datu garrantzitsua izango da, laguntza emateko, aurretik laguntzak eman badira eta haiek kustifikatu ez badira edo itzuli behar izan badira.

Bestalde, emandako laguntzak justifikatzeari dagokionez, kontuan hartu behar da 1.1 atalean adierazten dena, egoerak aipatzen baititu erabiltzailea laguntza jaso ondoren hasten bada etxebizitza banku-entitatearen bidez ordaintzen.

Etxebizitza mantentzeko gastuen kontzeptuan laguntzak justifikatzeko, urteko zenbaketa egingo da.

Odontologia-tratamendua egiteko edo betaurrekoak erosteko laguntzak justifikatuzat emateko, aurretik aurkeztu eta onetsi den aurrekontuan agertzen den klinikan edo hornitzailearekin eginak izan behar dute horiek.

5.7. Bidegabekoen erreklamazioa:

Bidegabe kobratutakoak itzultzeko, honako zenbatekoak eta epeak ezarriko dira izaera orokorrean:

* Hilean gehienez 60 €-ko kuota, zenbateko osoa erabat itzuli arte beharrezkoak diren hilabeteetan, betiere epea 6 hilabete baino luzeagoa ez denean.

* Hilean gehienez 100 €-ko kuota, zenbateko osoa erabat itzuli arte beharrezkoak diren hilabeteetan, aurreko atalean esandakoa aplikatuz itzultzeko epea 6 hilabeteetik gorakoa denean.

5.8. Bidegabeen itzulketa.

– Zorra aitortuta, betetzat emango da alegazioen izapidea. Kasu horretan, erabiltzaileak zorraren aitorten-dokumentua aurkeztu beharko luke. Dokumentu horrekin, zuzenean egingo litzateke bidegabeak erabakitzeko izapidea (hasieren ebazpena hasi gabe eta alegazioei itxaron gabe).

– Badago aukera bidegabeko kopuruak borondatez ordaintzeko, udalaren kontuan zuzenean ordainduta. Kasu horretan, itzulketa onartzeko ebazpen bat bakarrik beharko litzateke.

Kasua daraman gizarte-laguntzailearen balorazio teknikoak kontuan hartuta, onartu ahal izango da obligazioak ezarritako epetik kanpo betetzea (bereziki gastua justifikatzeari buruzkoak), baita bidegabeko prestazioak itzultzeko prozedura hasi ondoren ere, itzulketarako amaierako ebazpenaren aurretik. Kasu horretan, itzulketa ez dela bidezkoa aitortuz amaituko da prozedura.

6. FINANTZAKETA

Laguntza hauek eman ahal izateko, kreditua egon behar da Gizarte Ongizate, Hezkuntza eta Gazteria Arloko, «Lehen Arreta» programako 1.0410.480.01.313.20 «Familientzako Diru-laguntzak» kontu-sailean.

Xede horietara bideratutako aurrekontua eta zenbatekoak handitu edo murriztu egin ahalko da ekitaldian zehar, dauden finantza-aukeren eta gastua gauzatuko den mailaren arabera.

Gastu osagarria(k) baimentzearen ondorioz, laguntza berriak eman behar direnean ere honen bidez onartu diren irizpideak aplikatuko dira.

hagan considerar la imposibilidad o dificultad de presentación en los plazos establecidos, circunstancias que serán objeto de valoración técnica.

– Atendiendo a lo que marca el Decreto 16/2017, del 17 de enero, en su artículo séptimo: «A la hora de valorar desfavorablemente la idoneidad de las ayudas para paliar la situación de necesidad en el caso concreto, se atenderá especialmente a la existencia de circunstancias o antecedentes que revelen el riesgo de que vayan a realizarse un uso indebido de las mismas o incompatible con su finalidad».

Por lo tanto será dato relevante para la concesión de nuevas ayudas, la falta de justificación o de reintegro de ayudas concedidas con anterioridad.

Por otro lado, en relación a la justificación de ayudas concedidas, tener en cuenta lo que se señala en el apartado 1.1 respecto a las situaciones en las que la persona usuaria inicie el pago de la vivienda a través de entidad bancaria con posterioridad a la percepción de la ayuda.

Para la justificación de las ayudas en concepto de gastos de mantenimiento de la vivienda se realizará un cómputo anual.

Para considerarse justificadas las ayudas para tratamiento de odontología o la compra de gafas estas deberán haberse realizado en la clínica/proveedor que conste en el presupuesto presentado y aprobado anteriormente.

5.7. Reclamación de indebidos:

Para el reintegro de indebidos se establecerán con carácter general las siguientes cuantías y plazos:

* Cuota mensual máxima de 60 € durante los meses necesarios para el total reintegro, cuando no resulte de ello un plazo superior a 6 meses.

* Cuota mensual máxima 100 €, durante los meses necesarios para el completo reintegro, cuando de la aplicación del apartado anterior resulte un plazo de reintegro superior a 6 meses.

5.8. Reintegro de indebidos.

– Con el reconocimiento de deuda se entendera cumplido el trámite de alegaciones. En este caso sería necesario la presentación por parte de la persona usuaria de un documento de reconocimiento de la deuda. Con este documento directamente se realizaría el trámite de resolución de indebidos (sin iniciar resolución de inicios y sin esperar a las alegaciones).

– Existe la posibilidad de reintegro voluntario de las cantidades indebidas mediante abono directo en la cuenta del ayuntamiento. En este caso, solo sería necesaria una resolución de aceptación del reintegro.

En función de la valoración técnica de la trabajadora social referente del caso, se podrá aceptar el cumplimiento de obligaciones (en especial los relativos a la justificación del gasto) fuera del plazo establecido (incluso iniciado ya el procedimiento para reintegro de prestaciones indebidas) y antes de la Resolución final declarando el reintegro. En este caso el procedimiento finalizará declarando la improcedencia del reintegro.

6. FINANCIACIÓN

La concesión de estas ayudas está condicionada a la disponibilidad de crédito en la partida 1.0410.480.01.313.20 - «Subvenciones a Familias», del programa de «Atención Primaria» del Área de Bienestar Social, Educación y Juventud.

El presupuesto y el importe autorizado a estos fines podrá ser objeto de ampliación o reducción a lo largo del ejercicio, en virtud de las posibilidades financieras y el grado de ejecución del gasto.

Para la concesión de nuevas ayudas en virtud de autorizaciones de gasto suplementario, serán también de aplicación los criterios aprobados por la presente.